

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

16/2020 Foru Araua, urriaren 14koa, 11/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, irailaren 22koa, baliozkotzeko dena, enpresa estrategikoen kaudimenari laguntzeko funtsetik eratorritako eragiketei eta egintzei aplikagarri zaizkien zerga salbuespenak onesteko

Arabako Batzar Nagusiek, 2020ko urriaren 14an egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

16/2020 Foru Araua, urriaren 14koa, 11/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, irailaren 22koa, baliozkotzeko dena, enpresa estrategikoen kaudimenari laguntzeko Funsetik eratorritako eragiketei eta egintzei aplikagarri zaizkien zerga salbuespenak onesteko.

HITZAURREA

Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak –Arabako Zerga Orokorrari buruzkoa- 8. artikuluan baimendutakoarekin bat etorritik, Foru Gobernu Kontseiluak onartu du, presazko arazoak direla-eta, irailaren 22ko 11/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, enpresa estrategikoen kaudimenari laguntzeko funtsetik eratorritako eragiketei eta egintzei aplikagarri zaizkien zerga salbuespenak onesteko.

Aipaturiko 8. artikuluko 2. apartatuan ezartzen du, xedapen orokor horiek Batzar Nagusiek baliozkotu edo indargabetu behar dutela indarrean dauden arauen arabera.

Tramite hori eginda, Batzar Nagusietako Osoko Bilkurak baliozkotze akordioa hartuta eta 2013ko apirilaren 22ko Arabako Batzar Nagusietako funtzionamendu araudia aldatzeko 17/2013 Foru Arauaren 147. artikuluen arabera, bidezkoa da aipaturiko Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua baliozkotzeko foru araua ematea.

ARTIKULU BAKARRA. Baliozkotuta geratu da irailaren 22ko 11/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, enpresa estrategikoen kaudimenari laguntzeko funtsetik eratorritako eragiketei eta egintzei aplikagarri zaizkien zerga salbuespenak onesteko.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 14a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA